



URDAIAZPIKOA ONGI MOZTEAREN ARTEA

Espainiako Urdaiazpiko Moztaile Txapelketan bigarren postua lortu du Iñigo Altuna tolosarrak >2

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2008-04-24**

VIURTEA 1.416.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Lehen urratsa eman du Udalak Haur Eskola kontsorzioan sartzeko

IBARRA Udaleko alderdiek aho batez onartu zuten kontsorzioan sartzeko eskaera, herenegungo bilkuran

ERANTZUNA Desadostasuna adierazteko 150 lagun inguru elkartu ziren; bihar elkarretaratzea egingo dute



Bete egin zen herenegun udaletxeko batzar aretoa; herritarrek erabakiarekin ez daudela ados adierazi zuten. A. IMAZ



Ikasleak Afrikari buruzko erakusketa ikusten. N. GARZIA

Kilometroen aldeko I. Ñañarri Rallyesprinterako dena prest

KIROLA Irurako Ikastolak antolatu du Hondarribiko Sardara motor elkartearekin elkarlanean; Amezketan amaituko da proba 4

Erleta Eskolan Hezkuntza Eskubidearen Astean murgildurik

LEITZA Afrikako egoeraren inguruan zenbait ekitaldi egin zituzten atzokoan gatzetxoek 7

hitza info

elastiko berriak salgai
haur, gazte eta helduentzat

Harpidedunentzat
%25
merkeago

Tolosako
HITZAren
bulegoan
eskuragarri.

elastikoarekin
poltsa opari!



Ikasleek etxetik emandako gauzeekin erakusketa hagitz oparoa antolatu zuten. N. GARZIA



Haur-hezkuntzako umeek egindako marrazkiak ere ikusgai jarri zituzten jantokian. N. GARZIA



Afrikako argazkiak eta Filipinetako marrazki bizidunetako film bat ere bota zuten. N. GARZIA



Puzzlea osatu aurretik, esaldia ozenki irakurri zuten banaka. N. GARZIA



Afrikako puzzlea hezkuntzaren aldeko esaldiez bete ondoren, bertsoan. N. G.

Afrika gertuago

Leitza » Hezkuntza Eskubidearen Aldeko Astea denez, Afrikako egoeraren inguruan zenbait ekitaldi egin zituzten atzo Erleta Eskolan.

NAIARA GARZIA

Mundu mailan Hezkuntza Eskubidearen Aldeko Astea denez, atzo zenbait ekitaldi antolatu zituzten Erleta eskolan. Lehengo urtean giza-katea egin zuten, eta aurten Afrikara hurbiltzeko saiakera egin dute bertako ikasle eta irakasleek.

Horretarako aste guztian zehar horrekin erlazioan dutako gaiak landu dituzte, baina atzo izan zen egunik garrantzitsuenak.

Alde batetik erakusketa oparo bat jarri zuten Afrikako herrialde

ezberdinetako gauzeekin, ikasleek etxetik ekarritako gauzeekin. Haur- hezkuntzakoak bertan izan ziren erakusketa ikusten eta gero kontzientzia-festak jantokian jarraitu zuten. «Haur- hezkuntzakoek marrazkiak egin zituzten», dio Gemna Txopeitia irakasleak, «eta marrazki horiekin erakusketa jarri genuen jantokian».

Ikasle guztiak jantokian elkartu ondoren, Afrikako musika jarri eta bertako argazki batzuk proiektatu zituzten eta marrazki biziduneta-

ko film motz bat ikusi zuten. Gero Afrikako maparen puzzle bat egin zuten. «Lehenengo mailatik seigarrenera gela bakoitzari zati bat egokitu zaio eta bertan nola bizi diren landu ondoren, puzzle zati horretan kanpainari buruzko beraiei bururatu zaien esaldia idatzi dute». Horrela, denen artean, Afrikako mapa osatu zuten.


Amaitzeko, bosgarren mailako Beñat Urkiola eta Martxel Intxaustik bertso bana bota zuten eta denok batera abestu zituzten.

Zer egiteko asko dagoelako

Txopeitiak azaldu duenez, «2015erako erakunde ezberdinek erabaki zuten hezkuntzaren inguruan diru asko jarriko zutela mun-

du guztiak hezkuntza jasotzeko aukera izan zezan eta oraingoz ez dute ezer egi. Hau nolabait mugitu

egin beharra direla adierazteko modu bat da, 2015erako zerbait lortzeko».



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

